

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

10. zenbakia

Data 2009-01-16

1095 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK GFA-OGASUNA ETA FINANTZAK Urtarrilaren 13ko 15/2009 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 308 eredia onartzen duena.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Urtarrilaren 13ko 15/2009 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 308 eredia onartzen duena –Itzulketa eskaera. Baliokidetasun errekarua, BEZaren Erregelamenduko 30 bis artikulua eta noizbehinkako subjektu pasiboak–.

Otsailaren 1eko 49/1995 Foru Aginduaren bidez onarturik geratu zen, besteak beste, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren 308 eredia, «Itzulketa eskaera. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baliokidetasun errekarua eta noizbehinkako subjektu pasiboak» izeneko.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregelamenduko 30 bis artikuluan aurreikusita dagoen itzulketa prozedura berria dela medio, bidaiarien edo merkantzien errepide bidezko garraioan jarduten duten subjektu pasiboari kuota kengarriak itzul dakizkieke baldin eta, araubide erraztuan tributaturik eta erregelamendu horretako 30.2 artikularen b) eta c) letretan ezarritako baldintzak beterik, kenkaridunak diren kuotak jasan badituzte jarduera horiei atxikitako garraiobideak erosteagatik. Bada, horrek beharrezko egiten du 308 eredia aipatutako itzulketa prozedurara egokitzea.

Gauzak horrela, honako hau,

XEDATU DUT

1. artikulua. 308 eredia onartzea.

Bat. Onarturik geratu da 308 eredu berria, foru agindu honetan eranskin moduan ageri dena, eta honela izendatuta datorrena: «Itzulketa eskaera. Baliokidetasun errekarua, BEZaren Erregelamenduko 30 bis artikulua eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren noizbehinkako subjektu pasiboak». Ereduak bi ale ditu:

- Subjektu pasiboaren alea, eta
- Administrazioaren alea.

Bi. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ondoko subjektu pasiboek erabili behar dute eredu hori:

a) Garraiobide berrien noizbehinkako salmenta salbuetsiak egiten dituztenek, betiere saldutako garraiobidea eskuratzeko jasan edo ordaindutako kuotak itzultzeko eskatzen badute abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea egokitzen duenak, 93.2 eta 94.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

b) Bidaiariaren edo merkantzien errepide bidezko garraioan jarduten dutenek, baldin eta, zergaren araubide erraztuan tributaturik, BEZaren erregelamenduko 30.3 artikuluko b) eta c) letretan ezarritako beharkizunak beterik, eta jarduera horri atxikitako garraiobideak eskuratze-agatik zerga horretan kenkaridunak diren kuotak aurrez ordaindurik, kuota horien itzulketa eskatzen badute eta araubide erraztuari dagozkion hiruhileko autolikidazioetan kuota kengarri horiek aipatu ez badituzte edo aipatzeko asmorik ez badute zergaren erregelamenduak 38.2 artikuluan xedatutakoari jarraituta. Halaxe izango da, baita ere, garraiobideak merkantzien errepide bidezko garraioan jarduten duten subjektu pasiboek eskuratu dituztenean, baldin eta aurreko baldintza guztiak beterik, garraiobide horiek Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauaren II. Eranskineko N1 kategoriakoak badira –baimendutako gehieneko tasa - gutxienez 2.500 kilokoa dutenak– edo eranskin horretako N2 eta N3 kategorietan jasota badaude.

c) Baliokidetasun errekaruaren arabera tributatzen duten subjektu pasiboek, betiere bidaiariaren erregimeneko esportatzaileei itzulketak egin badizkiete, abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuaren 117. artikuluan jasotakoaren arabera, eta itzulitako kuoten zenbatekoa berreskuratzeko eskatzen badute.

2. artikulua. Aurkezteko epea.

Bat. Foru agindu honetako 1. artikulua bigarren apartatuko a) letran aipatutako subjektu pasiboek hogeita hamar egun natural izango dituzte 308 eredia aurkezteko, garraiobidea entregatzen den egunetik aurrera.

Kasu horretan, saldutako ibilgailu bakoitzeko aurkeztu behar da eredia. Ezingo da bi ibilgailu edo gehiago aldi berean likidatu, ezta ere eredu bakar batean likidatu garraiobide berrien batasun barruko salmentak eta bidaiariaren erregimenean egindako esportazioengatik baliokidetasun errekaruan dauden subjektu pasiboek egindako itzulketak.

Bi. Foru agindu honetako 1. artikulua bigarren apartatuko b) letran aipatutako subjektu pasiboek garraiobidea eskuratu ondorengo hilabetearen lehen 25 egunen barruan aurkeztu behar dute 308 eredia.

Hiru. Foru agindu honetako 1. artikulua bigarren apartatuko c) letran aipatutako subjektu pasiboek urteko hiruhileko bakoitza amaitu ondorengo hilabetearen lehen hogeita bost egun naturalen barruan aurkeztu behar dute 308 eredia. Aldiz, azken likidazio aldiari dagokion hurrengo urteko urtarrilaren lehen hogeita hamar egun naturalen barruan aurkeztu beharko da.

Kasu horretan, hiruhileko bakoitzeko autolikidazioetan subjektu pasiboak hiruhilekoaren barruan benetan egin dituen itzulketak konputatuko dira soil-soilik.

3. artikulua. Non aurkeztu.

Honako tokiotan aurkeztu daiteke 308 eredia: Abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretuaren bidez onartutako Zergabilketa Erregelamenduak jasotakoari jarraituz bilketan laguntzeko baimenduta dauden entitateetako batean (banku, aurrezki kutxa edo kreditu kooperatibetan), herritarren arretarako bulegoetan, edo Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergen Zerbitzuan.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrrik gabe geratzen dira foru agindu honetan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, otsailaren 1eko 49/1995 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorten-likidazioa egiteko 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituenak, 308 ereduari dagokion guztian.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean.

Donostia, 2008ko urtarrilaren 13a.—Pello Gonzalez Argomaniz, Ogasun eta Finantza Departamentuko Foru diputatua.